

LORD CARNARVON ETA EUSKAL-HERRIKO FORUAK

JUAN SAN MARTIN

Maiz idatzi da foruei buruz bere funtsean zer direnik jakin gabe, edo egungo egoerari eta bakoitzaren politikazko joeragatik bere funtsa alderantziz agertzera behartuz. Holako kasoetan egia ahalik zihurren jakitzea nahi baldin bada, bertako interesetatik landa tratatzen duten autoreetara jotzea dugu onen onena. Eta hala dugu Carnarvon-go kondea, foruen galera zekarren Cádiz-ko konstituzioaren erabagien ondotik (1812) Espainia eta Portugal-eko lurraldeak zehar ibili zen bertako historia arakatuz eta ikertuz, bertako egoeraz jabetzeko.

Lord Carnarvon-ek bi osterata egin zituen Iberiako peninsulan zehar, bigarrena 1827an, eta bere oroitzapen eta azterketak idatzirik utzi zituen. Egia esan, Carnarvon, noblezazko familian sortua zen eta Eton-en eta Oxford-en estudioak egina. Estudioak bukatu ondorean Afrika ifarraldetik, Espainiatik, Portugal-dik eta Grezia-tik ibilaldiak egina, garai haretarako munduz eta kulturaz ondo hornitua eta gizon zentzunduna. Eta aburu zuzenak emateko jakintza haina zentzuna behar da. Lord Carnarvon bi hoién jabe zela iduritzen zaigu. Hala ere, ez dugu esan nahi berak esandako guzia bat batean eta besterik gabe irentsi behar dugunik, ez; bakoitzak eskubide osoa du bere iritzia lortzeko. Baina bai beharrezkoa zaigu, nahasmenduetatik hat, gai bakoitzean jakitun direnei entzun beharra, irakurri beharra. Holako bidea hartzea norperaren onerako baita; eta, Carnarvon-en iritzia, gure foru zaharrei buruz, ezagutu beharrezkoak dira foruetaz jardun nahi badugu.

Bere liburua, Iberian zehar egin zituen ibileren egunerokoa da. Zehatz izkribatutako egunerokoa, Iberiako nazioak maite zi-

tuen eta karlisten aldekoa zen. Honegatik edo, liburuaren azken partean Euskal-Herriko foruei buruz ari da. Foruak, historia eta euskaldunen ohiturak adiarazten ditu.

Erreginaren jeneralak, euskaldunak egiten zioten eten gabeko borrokarekin nekaturik, foruak errespetatzea agindu omen zuten, aldez aurretik jakinean zirelarik gobernuak ez zuela onartuko eta foruak galduko zirela.

Foruak ez omen ziren zaharrez gastatuak eta baztertu beharrezkoak bihurtu, ez. Gaur, ordea, hauteskundeen aurrean, zenbait alderdi ezkertiarrek mespresiatuak izan dira, berriagoa den autonomia eskaintzean, Euskal-Herriko esan zahar batek dio: ahal dena, itsasoko arrainik hoberena. Eta esaerari erantzunez, har dezagun ahal dena; baina ez uste izan autonomia denik hoberena. Honen eskubideak laburragoak bai dira, baina konpon bide baterako amor eman beharrezkoak. Atakagaitz hontatik nolabait irten beharrean gara, gizonak gizonen amor eman beharrean. Hau izango da gaurko arrazoia. Baina ez foruak txarrago bezala baztertu behar direlako. Herriak, foruekin, bere jabetasun osoa zuen, autonomiak eskaintzen ez duen haina.

Beraz, garbi dago, hobeagoaren trukez txarragoa eskaintzen digutenak ezjakin batzuk direla edo bestela gure herriaren aurka daudela. Ez bait dut nahi pentsatzerik gezurretan ari zaizkigutela.

Carnarvon-ek zionez, euskaldun bakoitzaren etxea gaztelua bezala izan zen; ez zen majistradurik bortxatuko zuenik, ez irikiko zuen agindurik, ezta ere ein zitekean armarik edo zaldirik kendu; euskalduna ezin zen presondegietara eraman zorregatik edo bestelako zerbaitegatik aldez aurretik Batzarraren aurrekaldera eraman eta bere hutsak legearen aurrean salatu gabe.

Beste inongo gizonak ez omen zuten holako eskubiderik, agintariak indarrez behartu gabe, "Habeas corpus" berak baino eskubide handiagoak ematen zizkiela euskaldun foruak. Eta, gainera, britaniarren eskubide horiek baino lehenagokoak zituztela euskaldunak berenak. Hau ezta guti ingles batek aitortzeko.

Holako esaldiak ditu Carnarvon-go kondearen liburuak. Bere ustez, euskaldunon foruak suizarren kantoietakoak baino libertate handiagokoak dira edo ziren. Honegatik, Euskal-Herria defenditu

beharrezkoa zen. Eta foruak debekatu edo kendu zituzten agintariak salatzen zituen, behin eta berriaz, gizonaren libertateak ukatzea zenez. Orduan, tiraniaren aurka sartzen da, naiz tirania hau agintari despota batengandik etorri eta naiz demokraziaren ize-nean etorri.

Liburu honek, irakurgai bezala, goitik hasi ta beheara, dena du probetxugarria. Bada bertan zer ikasirik, ikasi nahi duenarentzat, eta ikasi beharrik ere badute foruetaz mintzatu nahi dutenez.